

**2013KO ABENDUAREN 20AN GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO
OHIKO BILERAREN AKTA**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeia

HILABETEA: Abendua.

URTEA: Bi mila eta hamahirua.

HASIERAKO ORDUA: Goizeko bederatzia laurden gutxi.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Sei (6)

MAHAIBURUA: Koldo Agirre Mujika

BILDUAK: M^a Mar Celaya González

Aitor Aldasoro Iturbe

Alfonso Segade González

Josi Insausti Mujika

Garbiñe Zurutuza Fernández

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

1.- AURREKO AKTA. 2013ko azaroaren 25eko aktaren onespina.

2013ko azaroaren 25eko aktaren berri eman ondoren, bildutakoek aho batez onartu dute.

2.- OBRAK ESLEITZEA. J. M. Barandiaran parkea urbanizatzeko eta jolas guneari estalkia jartzeko obrak esleitzeko proposamena.

2013ko abenduaren 18ko Kontratazio Mahaiaren proposamenaren berri eman da:

“AURREKARIAK

1.- 2013ko irailaren 16an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen prozedura irekiaren bitartez, J. M. Barandiaran parkea urbanizatzeko eta jolas guneari estalkia jartzeko obrak kontratatzea, horretarako baldintza plegua onartuz. Lizitazio prezioa, 412.968,02 €tan gehi BEZ, finkatu zen eta egikaritze epea 4 hilabete.

2.- Deialdia, 2013ko irailaren 23an argitaratu zen eta eskaintzak aurkezteko 26 eguneko epean, lizitaziora bederatzi enpresa aurkeztu ziren (ikus 1. dokumentua).

3.- Dokumentazio administratiboa kalifikatu ondoren, bi enpresei dokumentazioa osatzeko errekerimendua egin zitzaien eta biak aurkeztu zuten dokumentazioa eta horren ondorioz enpresa denak onartuak izan ziren lizitazioan parte hartzeko (ikus 2. dokumentua).

4.- Urriaren 29an proposamen ekonomikoei buruzko kartazala ireki zen, emaitza ondorengoa izan delarik:

	LIZITATZAILEAK	PREZIOA / PRECIO	EGIKARITZE EPEA / PLAZO DE EJECUCIÓN
1	CNES MORGA Erregistro sarrera zenbakia: 2797	364.198,30	4 hilabete
2	OTEGI-GAZTAÑAGA Erregistro sarrera zenbakia: 2879	359.183,47	4 hilabete
3	CNES MOYUA Erregistro sarrera zkia: 2882	362.544,62	4 hilabete
4	UTE, URBYCOLAN-GRAMA Erregistro sarrera zkia: 2884	326.082,81	4 hilabete
5	LURGOIEN Erregistro sarrera zkia: 2885	336.885,53	4 hilabete
6	CAMPEZO CONSTRUCCIÓN Erregistro sarrera zkia: 2901	408.485,00	3,25 hilabete
7	ALTUNA Y URIA Erregistro sarrera zkia: 2902	354.948,01	3 hilabete
8	UTE GABIKA-SIECSA Erregistro sarrera zkia: 2903	298.880,00	4 hilabete
9	VICONSA Erregistro sarrera zkia: 2915	353.998,81	4 hilatete

Baldintza pleguan ezarritako esleipen irizpideak ondorengoak dira:

a) Proposamen ekonomikoa 90 puntu

Atal honetako balioespina egiteko, Zerbitzu Teknikoek, beharrezkoa ikusiz gero, aldez aurretik aurkeztutako eskaintzak homogeneiza ditzake.

Puntuazioa emateko honela jardungo da:

1. BALIOZKOTZAT jotako eskaintza GUZTIAK zenbatekoaren hurrenkeran (goitik behera) antolatuko dira.

2. Ekonomikoena suertatzen den eskaintzak 90 puntu jasoko ditu eta A ESKAINTZA izendatuko da.

Beste edozein eskaintza, B izendatua, horrela balioetsiko da:

$B \text{ ESKAINTZAREN PUNTUAKETA} = 90 + 1,25 \times ((A \text{ eskaintzaren zenbatekoa} - B \text{ eskaintzaren zenbatekoa}) / 1000$

b) Euskera. 5 puntu

Jarraian adierazten diren dokumentuaren bat enpresak beraien eskaintzak egiterakoan aurkeztzen badituzte 5 puntu emango zaizkie:

- EUSKERA sustatzeko ziurtagiria, hala nola "BAI EUSKARARI", "BIKAIN" edo antzeko izaera dutenak eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri horiek aplikatzen badituzte.
-
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

c) Berdintasuna. 5 puntu

Enpresan emakumearen sustapena lortzeko eta eta kontratua exekutatzekoan ezaugarri hori aplikatzen duela kreditatzen duen ziurtagiria aurkeztzen ditzuten eskaintzak 5 puntu emango zaizkie.

Egiaztagiria modu honetan egingo da:

- Gobenu Estatalak edo EMAKUNDE emandako berdintasunari agiria edo organismo publikoaren batek emandako antzeko agiria.
- Aipatutako ziurtagiriak lortzeko baldintzak betetzen dituztenaren, zuzenbidean frogan modura onartutako edozein agiriak.

Aurkeztutako eskaintzak aztertu ondoren, ikusi da batzuk euskera sustatzeko nahiz emakumearen sustapena lortzeko ziurtagiriak aurkeztu dituela.

Gertatzen dena da, inork ez duela esan nola aplikatu behar dituen ziurtagiri horietatik ondorioztatzen diren ezaugarriak, kontratua exekutatzekoan.

Baldintza pleguak xehetasun horren azalpenik ematen ez duenez, Kontratazio Mahaiak erabaki du, besterik gabe ziurtagiri horiek aurkezten dituzten enpresei puntuak ematea.

Gertatzen dena da, prezio merkeena aurkezten duen, GABIKA, enpresaren proposamena bestetikiko desproporzionatua dela. Hori dela eta bere eskaintza justifikatzeko eskatu zitzaion abenduaren 17an udaletxean aurkeztutako bere proposamena justifikatzeko, baina data horretan, GABIKAK idatzia aurkezten du lizitazio prozesuan parte hartzea uko eginez.

Beraz, lizitazioan parte hartu duten beste enpresa bakoitzak lortutako puntuak batu ondoren esleipen-irizpide desberdinekiko, emaitza ondorengoa da:

J.M. BARANDIARAN PARKEA URBANIZATZEKO ETA JOLAS GUNEARI ESTALKIA JARTZEKO LANAK APERTURA DE PLICAS: CUBIERTA DE JUEGOS INFANTILES Y URBANIZACIÓN EN PARQUE J.M. BARANDIARÁN												
		Espe Kodea Nº Expte										
		Epea - Plazo (MESES)										
		OINARRIZKO LIZITAZIOA - LICITACION BASE										
		BEZ - IVA										
		BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA										
		OROTORA - TOTAL										
		BATEZ BESTEKO BEHERAPENA - BAJA MEDIA										
		EKINTZA PUBLIKOA ACTO PUBLICO										
INFORMENBERIA - Nº OFERTA	INFORMENBERIA - Nº OFERTA	ESKAINZAILEAK - OFERTANTES	OINARRIZKOA - OFERTA BASE	BEZ - IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	OINARRIZKOA - TOTAL	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA	BEZ ZENBATEKOA - IMPORTE IVA
1	2884	UTE, URBYCOLAN-GRAMA	326.082,81	21%	68.477,39	394.560,20	-21,04%	-7,80%	-8,99%			
2	2885	LURGOIEN	336.885,53	21%	70.745,96	407.631,49	-18,42%	-5,18%	-5,97%			
3	2915	VICONSA	353.998,81	21%	74.339,75	428.338,56	-14,28%	-1,04%	-1,20%			
4	2902	ALTUNA Y URÍA	354.948,01	21%	74.539,08	429.487,09	-14,05%	-0,81%	-0,93%			
5	2879	OTEGI-GAZTAÑAGA, S.L.	359.183,47	21%	75.428,53	434.612,00	-13,02%	0,22%	0,25%			
6	2882	CONSTRUCCIONES MOYUA	362.544,62	21%	76.134,37	438.678,99	-12,21%	1,03%	1,19%			
7	2797	CONST. MORGÁ	364.198,30	21%	76.481,64	440.679,94	-11,81%	1,43%	1,65%			
8	2901	CAMPEZO CONSTRUCCIÓN, S.A.U.	408.485,00	21%	85.781,85	494.266,85	-1,09%	12,15%	14,01%			
ESKAINZA EZ ONARTUAK - OFERTAS NO ADMITIDAS												
1	2903	UTE GABIKA - SIEC SA	298.880,00	21%	62.764,80	361.644,80						
BATEZ BESTEKO ESKAINZA (8 ESKAINZA) - OFERTA MEDIA (8 OFERTAS)			358.290,82			433.531,89	-13,24%					

Beraz, Kontratazio Mahaiak Gobernu Batzordeari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. J. M. Barandiaran parkea urbanizatzeko eta jolas guneari estalkia jartzeko obrak, URBYCOLAN-GRAMA denboraldirako enpresa elkarteari esleitzea, 326.082,81 €ko prezioan gehi 68.477,39 € (BEZ). Guztira, 394.560,20 €. Egikaritze epea, lau hilabetekoa izango da.

Bigarren. Baldintza plegu administratiboaren 19. artikulua arabera, Azpikontratutako partiden ordainketa, Administrazioak zuzenean egingo die azpi-kontratistei. Horren ondorioz, kontratuaren esleipendunak automatikoki endosoak egin beharko ditu horien alde. Endosoak, ziurtatutako obra zatiari dagokion fakturen kopiekin batera aurkeztuko dira.

Hirugarren. Adjudikaziodunari adieraztea, hamar laneguneko epean ondorengo dokumentazioa aurkeztu behar duela:

- Jarduera ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda egotea eta zerga betebeharretan eta gizarte segurantz an eguneratuta egotearen agiriak.
- 16.304,14 €ko behin betiko fidantza eratzea.
- Denboraldirako enpresa elkartearen eraketa-eskitura, IFKrekin batera.

Laugarren. Adierazitako dokumentazioa aurkeztutakoan, bost laneguneko epean, behin betiko esleipena egingo da, horretarako Alkateari baimena emanaz. Jarraian kontratu administratiboa sinatu beharko da.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- OBRAK LIKIDATZEA:

- Murumendi Ikastetxeko kanpoaldeko aroztegia berritzea.

Puntu honetan aparejadorearen txostenaren berri eman da:

“ANTECEDENTES:

Las obras de **REFORMAS EN LA CARPINTERIA EXTERIOR DE “MURUMENDI IKASTETXEA** se han realizado de acuerdo con el pliego de condiciones administrativas, y en el plazo establecido por el órgano de contratación.

Cabe señalar los hechos siguientes:

- Que el importe de la licitación ascendía a la cantidad de 98.705,83 €.
- Que la obra fue adjudicada por un importe de 66.574,39 € incluido el IVA, resultando ésta una baja con respecto a la licitación del -32,55%

Llevada a cabo la medición de la obra y su liquidación correspondiente, esta da lugar al siguiente cuadro:

¡Error! No se pueden crear objetos modificando códigos de campo.

Como se puede observar, la obra se ha desviado en su totalidad un 19,28 %, y se pretende justificar mediante el presente informe, las razones que han llevado a que se produzca este hecho.

INFORME:

1. El desvío de obra propiamente dicho corresponde al siguiente detalle:

Importe Ejecución Contrata			
Adjudicación	Certificado	Diferencia	% Aumento
66.574,39	79.413,24	12.838,84	19,28%

2. Durante la ejecución de las obras, se ha llevado a cabo las siguientes partidas no contempladas en el proyecto:

Partida	Petición de	Importe
Mejoras promovidas por la Dirección del Centro. <ul style="list-style-type: none"> • Muelle cierra puertas • Cierre eléctrico de puertas • Lamina en vidrios 	Dirección del Centro	1.292,- (1,94%)
Mejoras en el edificio. <ul style="list-style-type: none"> • Anclajes de cara vista 	Dirección de Obra	975,- (1,46%)
Partidas no contempladas en el proyecto, por remates. <ul style="list-style-type: none"> • Pintura en exteriores e interiores. • Rodapié • Arreglo de techos por conductos. • Desmontaje de barandillas • Modificación de bajantes. • Remates de ventanas • 	Dirección de Obra	8.451,- (12,69 %)
Partidas por modificación de medición	Dirección de Obra	2.120,84 (3,18%)
SUMA TOTAL EJECUCION CONTRATA (IVA INC)		12.838,84 (19,28%)

3. A pesar de haberse desviado la liquidación un 19,28 % con respecto a la adjudicación, cabe señalar que la obra no ha alcanzado el importe de la

licitación lo que supone una economía con respecto a lo presupuestado (y licitado) de 19.292,60 €. Por ello, considero que al no haberse superado el 20 %, puede aprobarse la liquidación presentada al ajustarse ésta a la ley.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da, Murumendi Ikastetxeko kanpoaldeko aroztegia berritzeko obren likidazioa, esleitutakoa baino 12.838,84 € ordaintzea.

- Igartza Oletako aparkalekuaren eta garajeetako sarbideen obrak.

Puntu honetan aparejadorearen txostenaren berri eman da:

“ANTECEDENTES:

Las obras de EJECUCIÓN DEL APARCAMIENTO DE IGARTZA OLETA Y ACCESOS VARIOS DE ENTRADA A GARAJES se han realizado de acuerdo con el pliego de condiciones administrativas, y en el plazo establecido por el órgano de contratación.

Cabe señalar los hechos siguientes:

- Que el importe de la licitación ascendía a la cantidad de 338.788,30 €.
- Que la obra fue adjudicada por un importe de 168.691,01 € incluido el IVA, resultando ésta una baja con respecto a la licitación del - 50,69%

Llevada a cabo la medición de la obra y su liquidación correspondiente, esta da lugar al siguiente cuadro:

PROYECTO		CERTIFICACIONES												
OBRA	IMPORTE DE		CERTIFICACION		IMPORTE DE EJECUCION MATERIAL		IMPORTE DE EJECUCION CONTRATA		IMPORTE DE IVA		TOTAL		% EJECUCION s/ adjudicacion	
	PRESUPUESTO	ADJUDICACION	Nº	Fecha	INDIVIDUAL	a ORIGEN	INDIVIDUAL	a ORIGEN	INDIVIDUAL	a ORIGEN	INDIVIDUAL	a ORIGEN	INDIVIDUAL	a ORIGEN
OBRAS DE EJECUCIÓN DEL APARCAMIENTO DE IGARTZA OLETA Y ACCESOS VARIOS DE ENTRADA A GARAJES DE BEASAIN	338.788,30	168.691,01	1	30/08/2013	11.483,67	11.483,67	13.665,57	13.665,57	2.869,77	2.869,77	16.535,34	16.535,34	9,80%	9,80%
			2	30/09/2013	92.943,94	104.427,61	110.603,29	124.268,86	23.226,69	26.096,46	133.829,98	150.365,32	79,33%	89,14%
			3	30/10/2013	16.234,58	120.662,19	19.319,15	143.588,01	4.057,02	30.153,48	23.376,17	173.741,49	13,86%	102,99%
			4	30/11/2013	8.180,83	128.843,02	9.735,19	153.323,19	2.044,39	32.197,87	11.779,58	185.521,06	6,98%	109,98%
			5											

Como se puede observar, la obra se ha desviado en su totalidad un 9,98 %, y se pretende justificar mediante el presente informe, las razones que han llevado a que se produzca este hecho.

INFORME:

4. El desvío de obra propiamente dicho corresponde al siguiente detalle:

Importe Ejecución Contrata			
Adjudicación	Certificado	Diferencia	% Aumento
168.691,01	185.521,06	16.830,05	9,98%

5. Durante la ejecución de las obras, se ha llevado a cabo las siguientes partidas no contempladas en el proyecto:

Partida	Petición de	Importe
Mejoras promovidas por Consorcio de Aguas de Gipuzkoa. <ul style="list-style-type: none">• Modificación red de abastecimiento campo de futbol.• Contador con armario y valvulería.	Consorcio de Aguas de Gipuzkoa	11.152,44 (66,26%)
Traslado de Borne, a 50 m de la ubicación prevista en el proyecto, suponiendo: <ul style="list-style-type: none">• Ampliación de la red de fecales.• Ampliación de la red de energía eléctrica.••• Anclajes de cara vista	Dirección de Obra	4.431,60 (26,33 %)
Partidas por modificación de medición y errores en el taquimétrico <ul style="list-style-type: none">• Recrecido de	Dirección de Obra	1.246 (7,40%)

muros.		
SUMA TOTAL EJECUCION CONTRATA (IVA INC)		16.830,05 (9,98%)

6. A pesar de haberse desviado la liquidación un 9,98 % con respecto a la adjudicación, cabe señalar que la obra no ha alcanzado el importe de la licitación lo que supone una economía con respecto a lo presupuestado (y licitado) de 153.267,24 €. Por ello, considero que al no haberse superado el 20 %, puede aprobarse la liquidación presentada al ajustarse ésta a la ley.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da, Igartza Oletako aparkalekuaren eta garajeetako sarbideen obrak likidazioa, esleitutakoa baino 16.830,05 € ordaintzea.

4.- KONTRATAZIOEN ZENTRALA. IBERDROLA GENERACIÓN, S.A.ri, energia elektrikoaren hornidura esleitzea eta kontratua formalizatzea.

Puntu honetan, zerbitzu batzordeko proposamenaren berri eman da:

“Gipuzkoako Foru Aldundiak, Kontratazioen Zentralaren bidez, IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. Enpresarekin burutu du espedientearekin bat egin duten foru eta udal erakundeentzat, ARGINDAR ELEKTRIKOA HORNITZEKO kontratatzeke Esparru-Akordioa.

Esparru Akordioaren iraupena 6 hilabetekoa izango da eta efektuak izango ditu 2013ko azaroaren 1etik aurrera.

Beasaingo Udala esparru akordio horri horniketa beharrezkoa denez (urteko gastua 195.000 eurokoa), horniketa kontratua eratorria, esparru akordioa burutu den enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea proposatzen da ezarritako baldintzen arabera (aurkeztutako eskaintzakoak, eta baldintza administratiboen eta ezaugarri teknikoen agirietakoak).

Horren ondorioz, Zerbitzu, Landa eta Ingurune Sailak, Gabernu Batzordeari ondorengo proposamen erabakia egiten dio:

IBERDROLA GENERACIÓN, S.A. enpresari esleitzea eta kontratua formalizatzea,

ezarritako baldintzen arabera (aurkeztutako eskaintzakoak, eta baldintza administratiboen eta ezaugarri teknikoek agiritakoak).”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, bozketa eginda, aho batez onartu da proposamena.

5.- HITZARMENAK FORMALIZATZEA:

- Udala-Gurutze Gorria.
- Udala-Andramendi Ikastola.
- Udala-Eraginez Kultur Elkartea.

Proposatu da jarraian aipatzen diren hitzarmenen edukia onartzea:

UDALA ETA GURUTZE GORRIAREN ARTEKO HITZARMENA:

“BILDURIK

Alde batetik, KOLDO AGIRRE MUJIKA, Beasaingo Udalaren Alkate-Lehendakaria. Udalaren izenean eta bere ordezkari jarduten du ekintza honetan, 2013ko abenduaren 20.ko Gobernu Batzordeak hartutako erabakiak horretarako ahalmena ematen diolako.

Beste aldetik, JOSE M^a BAZTARRIKA UGARTEMENDIA, Goierriko Gurutze Gorriko Eskualdeko Batzarraren Lehendakaria. Entitate horren izenean eta bere ordezkari jarduten du eta ekintza honetarakoerabakiak baimena ematen dio.

AURREKARIAK

1.- 1995eko maiatzaren 17an, Gobernu Batzordeak erabaki zuen Gurutze Gorriaren esku jartzea Urbialde plazako Udalaren jabetzako 228 metro karratuko lokala, entitate horren egoitza soziala izateko. Hartutako erabakiaren arabera, bi aldeek, 1995eko maiatzaren 26an, hitzarmena sinatu zuten adieraziz lagapena, 1995-12-31 baino lehen egitea aurreikusten zena, hogeitau urteetarako izango zela.

2.- Halaber, Gobernu Batzordeak 1999ko urtarrilaren 20an, Gurutze Gorriak aldezkari aurretik eskatuta, erabaki zuen Urbialde plazan, behean dagoen udal aretoa lagatzea arlo desberdinetako ikastaroak irakasteko. Hartutako erabakiaren arabera, bi aldeek 1999ko otsailaren 11n, hitzarmena sinatu zuten lagapena lau urtetan finkatuz eta tazituki luzatuz, eragin zuen xehetasunak mantentzen badira.

3.- Gaur egun bi hitzarmenak indarrean badaude ere, Gurutze Gorriak leku aldaketaren beharra adierazten du, batetik iresgarritasuna hobetzeko eta bestetik ematen dituzten ikastaroen eskaintza zabaltzeko ahal izateko.

4.- Aldeko irtenbidea lortzeko eta aldi berean interes orokorrari aurre egiteko, bi aldeek ere elkarri kontratatzeko ahalmena aitortu diote eta Gobernu Batzordeak 2013ko abenduaren 20an hartutako erabakiaren arabera, dokumentu hau idatzi dute ondorengo

ESTIPULAZIOEKIN

Lehenik. Bi aldeek ere 1995eko maiatzaren 26an eta 1999ko otsailaren 11n sinatutako hitzarmenak bertan behera uztea hitzartu dute.

Bigarren. Gurutze Gorriak, 1. eta 2. puntuan aipatzen diren Urbialde Plazako lokalak utziko ditu, bertako altzariak aurrez erretiratuz, eta Beasaingo Udalari entregatuko dizkio; hau guztia Gurutze Gorria Goierriko Unibertsitateko Campusera eraman (I Eranskina) eta Beasain-eko Udalak Igartza Oleta kalearen 10. zenbakian kokatutako lokala Gurutze Gorriaren eskura jarri ondoren, entitate horren egoitza lokal horretan kokatuko delarik.

Gurutze Gorriak Goierriko Eskolarekin duen hitzarmena kontuan izanik formaziorako toki arazoak izango balitu, Udalak elkarrizketak mantenduko ditu Gurutze Gorriarekin formazioa ematen jarraitzeko, toki berriak bilatzeko.

Hirugarren. Altzariak eta behar diren antzekoak Beasaingo Gurutze Gorriaren kontura izango dira.

Laugarren. Goierriko Gurutze Gorriak II eta II bis Eranskinetan zerrendatzen diren zerbitzuak urtero betetzeko konpromisoa hartu du (eranskin hori 5 urtero berriztatuko da ekintzak gehituz edo gutxituz), baina ekintza desberdinetako antolatzaileek, ekintza horietako propaganda egiterakoan, Gurutze Gorriko logotipoa jarriko dute (III Eranskina), elkarlan-entitate gisa.

Zerbitzuak prestatzerakoan, Goierriko Gurutze Gorriak, politika lingüistika gaien ezarritako irizpideak zuhertasunez beteko ditu, ekintzak bakarrik euskaraz eginez eta ezinezkoa denean, lehentasuna emanez, letra tamainari eta publizitateari dagokionean.

Bosgarren. Hitzarmen honen eduki ekonomikoa honela finkatzen da:

Udalak gastu hauek hartuko ditu bere gain:

- Igartza Oleta kalearen 10. zenbakiko lokalaren egokitzapen Lanak.
- Beasaingo Udalak energia elektriko, ura eta lokaleko gas naturalaren gastuak ordainduko ditu.
- Goierri-ko unibertsitateko campusean kokatutako bulegoaren alokairuarengatik hitzartutako kantitatea, hileko 350 €.

- *Udalak Igartza Oleta 10ean egindako egokitzapen gastuei erantzuna emanez, Gurutze Gorriak II eranskinean aurkezten diren zerbitzuak eskainiko ditu eta hiru hilabeteka konpentsazioak egingo dira aipatutako obren gastuak estali arte.*

Seigarrena. *Hitzarmen honek hamar urteko iraupena izango du Gurutze Gorriak Igartza Oletako lokala erabiltzen hasten denetik kontaktzen hasita eta epe horren amaieran, honen berritzea negoziatuko da.*

Udalaren esanez, Gurutze Gorriak adostutako data baino lehen lokala utzi beharko balu, Udalak orain arte lokalaren egokitzapenean jarritako diru kopurua itzuli beharko dio.

Zazpigarren. *Fakturazioa hurrengoan arabera egingo da:*

- *Faktura bat hiru hilean behin, hiruhilekoaren azken egunean beti, II. Eranskinean jasotako zerbitzuengatik.*
- *Beste faktura bat, hiru hilabetero hau ere, 1050 €koa, bulegoaren alokairuaren kontzeptuan.*
- *Azkenik beste faktura bat ere aurkeztuko du egiten den garraioagatik, honek diraun hilabeteetan eta hileroko zenbatekoa adieraziz (zerbitzu hau garraio publikoak betetzen ez duenean bakarrik eskainiko da).*

Eta guztiaren adostasun frogatzat, bildutakoek bikoizturik sinatu dute dokumentu hau goiburuan aipatutako data eta lekuan.”

Eranskina I

Goierrri Eskolaren Unibertsitateko Campuserako Heziketa Kudeaketa Unitatearen lekualdaketa dagokionez, Gurutze Gorriak une honetatik aurrera, Goierrri Eskolan eskainiko du bere formazioa ikasleen bertarainoko lekualdaketa eginez.

Goi Mailako zikloetako ikastaroak goizez dira eta ikastetxeraino bidaiak egiten dituzten zerbitzu publikoak badaude, berez ikasleriak badu bertaratzeko garraio aukera.

Egiaztapen Profesionaletako ikastaroak eta Gurutze Gorriak egin ohi dituen gainerako arratsaldean egiten dira eta ordu hauetan garraio publikorik izaten ez denez, Beasaingo Udalaren nahia zerbitzu honen finantzatzea bere gain hartzekoarena da.

Beasaingo Udalak ekimen hau martxan jartzen du, orain arte Gurutze Gorriak darabiltzan lokalak beharrezkoak direnez gero eta kokapen berrian Gurutze Gorriak espazio nahikorik ez duelako izango, behar dituen Ikasgelak eduki ahal izateko Goierrri Eskolarekin hitzarmen bat egin du formazioa han bideratzeko.

Egoera berri honen aurrean, Beasaingo Udalak, ikastaroetako parte hartzaileak trebakuntza-zentroraino eramateko egiten duen garraioaren kostuaren finantziazioaz arduratuko da, Gurutze Gorriari hau eskainiz.

Gurutze Gorriak ematen dituen ikastaroetako hasiera, eguneko hasiera-ordua, eta eguneko irteerako ordua Udalari komunikatzeko konpromisoa hartzen du.

Hileroko faktura bat egingo du, bertan adieraziz txantiloj batean, ikastaroetara bertaratutakoak. Ikastaro desberdinak, eta hauen ordutegiak bat etor daitezkeenez gero.

Bidai bakoitzeko adostutako zenbatekoa 25eko da, kontuan izanez ikastaro bakoitzerako beharrezkoak izango direla 2 bidaiak (igotzea eta jaistea) eta, eskeintzen diren plazak 16 direla (garraio publikoa erabiltzeko aukerarik ez dagoenean).

II. Eranskina

Adosturiko zerbitzuak, hurrengoak dira:

1. - Ongizate departamentuak eskatutako Mendi Irteerak, Erretiratuen Elkarteko programaren barruan, urtero guztira 5 irteera.

Urteko zerbitzuen kostua 1995 €.

2.- Beasaingo jaietako astelehenean irteera Arangoiti Zaharren Egoitzatik, San Martin Baselizaraino, egokitutako ibilgailuan, eskaera NAGUSILAN-ek egiten du eta Beasaingo Udalaren Ongizate Zerbitzuko oniritza du.

Urteko zerbitzuaren kostua 194,80 €.

3.- Jubilatuen egunaren ospakizuna. Bertan Gurutze Gorriak parte hartzen du, osasun laguntzan, Anbulantzia bat eta Egokitutako Ibilgailu bat haien guztien eskura jarritz.

Urteko zerbitzuaren kostua 390,80 €

4.- Behar gehien duten herritar familientzat, eskola-materiala emateko kanpaina.

Urteko zerbitzuaren kostua 525 €

5.- Herritar populaziorik kalteberarentzat arropa emate emanaldi kanpaina.

Urteko zerbitzuaren kostua 700 €

6.- Goierrri Gurutze Gorriak, aktiboki parte hartzen du urrian ospatzen den Boluntarioen astean, hilabeteko lehen larunbatean zehazki, material sozio-sanitarioan, sanitarioan eta formazio ataletako azken berrikuntzak stand batean azalduz.

Ekitaldi honetara, Arangoitiko egoiliar talde bati eramaten zaie jaisten zaie elkarte desberdinetako standak eskaintzen duena ikusteko.

Egun berean eta boluntarioen eguneko ospakizunen barruan egiten den patata tortilla lehiaketan ere parte hartzen ere du.

Urteko zerbitzuaren kostua 500 €

7.- Azaroak 1, Santu Guztien egunean, urtero herritarrak hilerriraino igotzeko zerbitzua ere eskaintzen da, bertara iristeko bidea eta duen aldapa handiak, zailtzen dielako pertsona askori hara iristea.

Zerbitzuaren kostua urtean 525,50€

8.- Etorquinekin egin daitezkeen kudeaketak.

9.- Beasaingo Jaiei hasiera ematen dion Mariaren Jaitsieran egiten den zerbitzua.

Anbulantzi 1/ urteko kostua 195 €

10.- Jaietan su artifizialeko ekintzari estaldura ematen zaio.

2 Anbulantzi / urteko kostua 390 €

IIBIS.Eranskina

1.- Lehen Taldeko Futbol partiduetako, Gazteria eta Kirol Sailak, zehazki Antzizar Kirolegiak eskatzen duena.

Urteko zerbitzuaren kostua 3.850 €

2.- Txirrindularia lasterketak, 1. puntukoak bezala, erakunde berak eskatuta.

Urteko zerbitzuaren kostua 1600€

3.- La Salle ikastetxeak, bere jaietarako urtero antolatzen duen "Lau Baserrietako Igoerarako" eskatzen duen laguntza.

Anbulantzi 1/ urteko kostua 195 €

4.- Euskal Jaien barruan Herri Kiroletako ekitaldietan, sarritan, aktibatuak izaten gara prebentzio zerbitzua egiteko.

Urteko zerbitzuaren kostua 390 €

5.- Durathona, Lareoko urtegiaren inguruan urtero egiten dena eta ohikoak ez diren baliabide bereziak eskatzen dituena.

2 Anbulantziak eta 2 Jeeps kopurua 780, - €

6.- Beasain- Aitzkorri froga, Mendizale Elkarteak bi urtetik behin antolatzen duena.

Zertzuaren kostua 3.900 €

Froga honetan Mediku zerbitzuaz eta OLTaz Antolakuntza arduratzen da.

7.- Azken bi urteetan egiten ari den lasterketa berri bat 14 Km.koa, Beasain – Ordizia - Beasain ibilbidearekin

3 Anbulantzia eta Jeep 1

Urteko zerbitzuaren kostua 780 €

8.- San Silvestre krossa, 9 km.tako ibilbidea duena eta Beti Bizi Elkarteak antolatzen duena. Eguerdiko 12etan du hasiera.

8 Anbulantzi

1 Mediku

Zerbitzuaren kostua 1.280 €

Medikuaren kostua 250 €

9.- Urtero Ehunmilak frogan erabiltzen diren botiken herena fakturatzen da, hauen kostua 1.500 € eta 1.750 € artean egoten da.

III. ERANSKINA

Gurutze Gorriko anagrama jarri behar da erakunde laguntzaile bezala egiten dituen ekitaldi guztietan .

Anagramaren tamaina honakoa izango da 11,5 X 3 zm.

 **Cruz Roja - Gurutze Gorria**
Asamblea Comarcal. Goierri

Tel. 943-162150 – 943-222222

UDALA ETA ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOPERATIBA
ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA:

“ BILDU DIRA

Alde batetik, Beasaingo Alkatea, **Koldo Agirre Mujika** jauna, 72487359F NA duena.

Bestetik, ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eko lehendakaria den **Aimar Larrea Garin**, NA 44.128.287. Aimar LARREA GARIN 2011ko azaroaren 29an egindako Batzar Orokorraren ondorioz izendatu zen lehendakari, eta hala erregistratuta dago Euskadiko Kooperatiben Erregistroan 2012ko ekainaren 29tik aurrera. Estatutuek ematen diote horrelako edozein eragiketarako sinadura-ahalmena.

AURREKARIAK

1.- Legedia

1948-12-10eko giza eskubideen deklarazio unibertsalak, hezkuntza eskubidea oinarrizko eta funtsezko giza eskubidetzat aitortu zuen. Era berean, europar parlamentuak, 1984-03-14ko ebazpenean adierazia du: "hezkuntzarako askatasun eskubideak, duen izaerarengatik, berarekin du obligazioa ere europar batasuneko partaide diren estatuentzat, hezkuntza eskubide hori gauzatu ahal izateko beste arloak bezalaxe finantziario arloa ere bermatzeko eta horretarako, eskolei, dirulaguntza publikoak eman behar dizkiete beren eginkizunak eta beren betebeharrak herri -erakunde erakoek edo izaera publikoak dituzten onura eta baldintza berdinetan bete ditzaten, antolakuntza, guraso, ikasle eta pertsonalari dagokienetan inolako bereizkeriarik egin gabe." Espainiako Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 3.2 artikulua aipatzen duen moduan (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legearen duen idazkeraren arabera), Herri Administrazioek (Estatuak, Autonomia Erkidegoak, Foru Aldundiek, Udalek, eta abarrek) beren jardueran herritarrei zerbitzuak eraginkortasunez eskaintzeko irizpidez jarduten dute eta, horren ondorioz, Beasaingo Udalak, erantzun egokia emateko asmoa adierazten du Andramendi ikastolak planteatutako beharrezane, beti ere apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 25.1 eta 28. artikuluetan xedatuaren arabera; beraz, Beasaingo Udalak, bere interesen kudeaketa egiteko eta dituen eskumenen arabera, herritarren beharrei eta asmoei erantzuten lagunduko duten jarduera mota eta herri zerbitzu guztiak susta ditzake.

2.- Historia

1.- 1996-97an Publikazio prozesuan, Alkartasuna Lizeoak erabiltzen zituen Udaletxe azpiko gelak. 1996ko irailean bertara sartzekoa zen Beasaingo Ikastola, baina auziak luze jo zuen eta azkenean HUISek (Hezkuntza sailak) Beasaingo Ikastolako gelak Urbialde enparantzan baimendu zituen, baina hala adostuta lokal haiek (Udaletxe azpikoak) Beasaingo herriko hezkuntza-beharretarako geratu ziren.

2.- Beasaingo Udalak hezkuntzarako baimenduta zeuden gela haiek beste erabilera batzuetarako hartu ditu. Beasaingo Ikastolak bere hazkundera medio, bere beharretarako eskatu ditu egun Gurutze Gorriak erabiltzen dituen gelak, lehen ere Urbialde plazan dagoelako.

3.- Egungo Egoera

1.- *ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA* Koop.Elk.ak 1996an sortu zuen *BEASAINGO IKASTOLA* .

2.- *ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA* Koop.Elk. herri onurako ikastetxea da.

3.- *ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOP.*, Beasaingo herriaren identitatearentzat eta nortasunarentzat ezinbestekoak diren euskaran eta euskal kulturaren oinarriturik gauzatu du eta gauzatzeko jarraitzen du bere hezkuntza proiektua. Horretarako darabil tresna moduan Ikastolen Elkarteak landu eta prestatutako euskal curriculumak.

Horiek horrela

ADIERAZTEN DUTE

1.- *Beasaingo Udala, Urbialde Plazan Gurutze Gorriak* erabiltzen dituen lokalen jabe da (I. Eranskina).

2.- *ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA* Koop.Elk.eak bere hazkunderako gela horiek behar ditu, eta *Beasaingo Udalak* gela horien erabilera baimentzen dio, ondoren adostutako baldintzetan:

LOKALEN EGOERA

Beasaingo Udalak Urbialde plazako lokalak instalazioak eta zerbitzuak egoera onean uzten ditu.

ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOP.ELK.eak II. Eranskinean aurrikusten diren obrak egingo ditu. ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak bere gain hartuko ditu hitzarmen honetan deskribatzen diren lokalak egoera onean mantentzeko egin beharrezko konponketak.

Gainera, ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak beharrezkoak diren aseguruak kontratatuko ditu lokalak aseguratzeko nahiz bertan ematen den jardueraren ondorioz sor daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko.

ANDRAMENDIK egin behar duen edozein obra egin behar duela, horren berri eman beharko dio, inolaz ere *Beasaingo Udalari* eta horretarako lizentzia eskatu beharko du.

LOKALEN ERABILERAZ

1.- *ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA* Koop. Elk.eak lokal hauek irakaskuntzarako erabiliko ditu eta horretarako eskuratuko ditu irakaskuntza jarduera garatzeko behar diren baimenak.

2.- ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak erabiltzen dituen argi,gas eta gainerako erabilera gastuak ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.earen kontu izango dira.

LOKALAK IKUSKATZEKO AHALMENA

Beasaingo Udalak, edozein konponketa edo larrialdi kasuren batetarako, eskumena izango du ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak darabiltzan lokalak ikuskatzeko, ahal dela beti ere, kooperatibako ordezkariaren batekin edo Beasaingo Ikastolako baimendutako pertsonaren batekin batera.

KONPONKETA ETA INDEMNIZAZIOAK

ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak erabilitako lokaletan gertatzen diren konpondu beharrak berehala egingo ditu eta ordainduko ditu.

Nahita edo axolagabekeriaz eragindako inolako kalterik balitz, ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOP. kargudun izango da.

ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOP.aren betebeharra izango da lokal horien edozein alde orokorraren kontserbazioan aurkitutako egoera txarren edo kaltegarrien berri BEASAINGO UDALARI ematea.

Hitzarmen honen amaieran, ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA KOOP.ak ez die inolako konpentsaziorik eskatu ahal izango egindako obregatik edo egindako edozein instalakuntzagaratik.

EPEA

1.- ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak lokal horiek erabili ahal izango ditu 5 urtez, hitzarmen hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Epe hori pasatuz gero eta ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.ak irakaskuntzan badihardu, aztertuko da hitzarmena luzatzeko aukera.

2.- ANDRAMENDI IRAKASKUNTZA Koop.Elk.eak lokal hauek erabili ahal izango ditu GURUTZE GORRIak lokalak libre uzten dituenean.

HITZARMENAREN ONDORIOAK

Hitzarmen honek ez du eragingo aldean eskumen eta atribuzio aldaketarik, aldeek bakarrik beraiei dagozkien betebeharrekin eta konpromisoak berezko dituzten ardurak onartzen baitituzte.”

UDALA ETA ERAGINEZ KULTUR ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA:

“BILDU DIRA

*Alde batetik, Beasaingo Alkate, **Koldo Agirre Mujika** jauna, 72487359F NA duena,*

*Bestetik, akordio honetan erabiliko diren gelen egungo jabea den ERAGINEZ KULTUR ELKARTEAren ordez 16299496V NA duen **Itziar Flores Mazkieran** Elkartearen Lehendakaria. 2010eko urtarrilaren 8an egindako Batzar Orokorraren ondorioz izendatu zen lehendakari eta hala erregistratuta dago Euskal Autonomi Erkidegoko Elkartearen Errolda Nagusian 2010eko martxoaren 9tik aurrera.*

AURREKARIAK

ERAGINEZ Kultur Elkarte, I. eranskinean deskribatzen diren lokalen jabe da, Tolosako 2. Jabego Erregistroan agertzen den moduan.

ERAGINEZ KULTUR ELKARTEAK Beasainen euskara, euskal kultura eta euskal kurrikuluma bultzatzeko xedea du.

Horregatik ANDRAMENDI IRASK. KOOP. Elkartearekin hitzarmen adostua du 2012-17 artean II eranskinean aipatutako lokalen beheko aldearen erabilerari buruz,

Horiek horrela hitzartu dute Beasaingo Udalarekin, Urbialde plazapean dauden lokalen eta III. eranskinean marratuta agertzen diren lokalen erabilera Beasaingo Udalarik lagatzea.

ADIERAZTEN DUTE

LOKALEN EGOERA

ERAGINEZ K.E.ak I. Eranskinean aipatutako lokalak instalazioak eta zerbitzuak egoera onean uzten ditu.

Beasaingo Udalak bere gain hartuko ditu, hitzarmen honetan deskribatzen diren lokalak jaso dituen bezala mantentzeko, egin beharrezko konponketak.

Gainera Udalak, beharrezkoak diren aseguruak kontratatuko ditu lokalak aseguratzeko nahiz bertan ematen den jardueraren ondorioz sor daitezkeen ezbeharrei aurre egiteko.

Beasaingo Udalak egin behar duen edozein obra egin behar duela, horren berri eman beharko dio, inolaz ere, lokalen jabeari.

LOKALEN ERABILERAZ

1.- Udalak erabiliko dituen lokal hauek Hezkuntzarako erabilera duten lokal batzuen barruan daudenez, Udalak bere gain hartzen du lokalaren erabiltzaileek ez dutela inolaz oztopatuko irakaskuntza.

2.- Aipaturiko lokaletara iristeko pasabidearen erabilera beste erakunde batekin konpartitua izango denez, Udalak bere gain hartzen du gune amankomun hori txukun mantentzearen ardura, beste erabiltzaileei inolako eragozpenik sortu gabe.

3.- Beasaingo Udalak erabiltzen dituen lokalen erabilera gastuak Beasaingo udalaren kontu izango dira.

LOKALAK IKUSKATZEKO AHALMENA

Lokal hauen jabeak, behar denean edozein konponketa edo larrialdi kasuren batetarako eskumena izango du, Beasaingo Udalak darabiltzan lokalak ikuskatzeko, baina beti ere, Udaleko ordezkariaren batekin batera.

KONPONKETA ETA INDEMNIZAZIOAK

Udalak erabilitako lokaletan gertatzen diren konpondu beharrak berehala egingo ditu eta ordainduko ditu Beasaingo Udalak.

Nahita edo axolagabekeriak eragindako inolako kalterik balitz, Beasaingo Udala kargudun izango da.

Gune amankomunean nahita edo axolagabekeriak eragindako inolako kalterik balitz, kalteak sortu dituen eragileak hartuko ditu bere gain.

Beasaingo Udalaren betebeharra izango da lokal horien edozein alde orokorraren kontserbazioan aurkitutako egoera txarren edo kaltegarrien berri jabeari ematea.

OBRAK.

Lagatako lokaletarako sarrera gune amankomuna denez eta gune horretan eraikin osorako sarrera bat dagoenez, Udalak sarrera hori behar bezala ixteko egin beharreko obrak bere gain hartuko ditu.

Udalak edozein obra egiten duelarik, aldeztu aurretik lokalen jabeari idatzizko baimena eskatu beharko dio.

Hitzarmen honen amaieran, Beasaingo Udalak ez dio inolako konpentsaziorik eskatu ahal izango egindako obren egindako edozein instalakuntzazatik.

EPEA

1.- Beasaingo Udalak lokal horiek erabili ahal izango ditu 5 urtez, hitzarmen hau sinatzen den hurrengo egunetik kontatzen hasita. Epe hori pasatuz gero, aztertuko da hitzarmena luzatzeko aukera.

Andramendi eta Eraginez arteko hitzarmenaren amaierak (2017.urtean) ez du hitzarmen honetan eragingo.

2.- Beasaingo Udalak lokal horiek erabili ahal izango ditu astelehenetik igandera, 09:00-22:00 ordutegian.

3.- Beasaingo Udalak lokalen sarrera nagusiko giltza eta lagatako lokalen giltzak jasoko ditu. Horretarako Udalak sarrera nagusiko pertsiara eta atea txartel kodifikatu sistemaren bidez irekitzeko moduan jarriko du, talde bat baino gehiago sartzen den momentutik.

HITZARMENAREN ONDORIOAK

Hitzarmen honek ez du eragingo aldean eskumen eta atribuzio aldaketarik, aldeek bakarrik beraiei dagozkien betebeharrekin eta konpromisoak berezko dituzten ardurak onartzen baitituzte.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “El convenio, en los términos propuestos, nos parece una barbaridad. Los convenios de antes eran más lógicos porque cada parte conveniente se hacía cargo de sus gastos. Ahora el Ayuntamiento tiene que pagar el acondicionamiento del local de Igartza Oleta y también el alquiler del local del Goierri.

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Si pero Gurutze Gorria va a pagar el acondicionamiento del local mediante la prestación de servicios, aunque estos pueden variar al alza o a la baja tanto en cuanto al tipo de servicios que se pueden prestar como en cuanto al número. Para hacer este convenio, nos hemos basado en el vuestro.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “No me parece lógico el que para la prestación de servicios como el de la asistencia en actividades deportivas haya que utilizar un número tan elevado de vehículos. Para Gurutze Gorria es lo mejor. Estará satisfecho porque se han aceptado todas sus exigencias, pero el número de actividades previsto no me parece que sea el adecuado.

Sin embargo, en el caso de los locales que ERAGINEZ KULTUR ELKARTEA cede al Ayuntamiento, es éste quien tiene que hacer el desembolso para habilitar la entrada a los mismos.”

En el convenio del año 99, Gurutze Gorria se hacía cargo de todo. En el convenio del 95, el 23% pagaba Gurutze Gorria y el resto el Ayuntamiento. El año 99, la habilitación de las aulas para la formación lo tuvo que pagar Gurutze Gorria.”

Josi Insausti jaunak (H1): “Al plantear el traslado de Gurutze Gorria, sabíais que la línea de formación quería mantenerla, a pesar de que en el local

de Igartza Oleta no hay sitio para ello. Queríamos promocionar la asistencia socorrista para que también la pudiera impartir otra entidad, pero con esto parece que ellos tienen la exclusiva. De todo ello se desprende lo siguiente:

- Se justifica el cambio de ubicación de Gurutze Gorria por cuestiones de accesibilidad y sin embargo, con el traslado no se da respuesta a sus necesidades, sino a las del Ayuntamiento.
- Se genera un agravio comparativo respecto de otros alumnos que se trasladan a otros municipios para recibir formación y obtener certificaciones en ámbitos socio-sanitarios, porque a éstos no se les abonan los viajes.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Pues pongámonos a ello. Podemos seguir dando subvenciones.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Se da la circunstancia de que la accesibilidad del local de Igartza Oleta, es peor.”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “la accesibilidad es perfecta por detrás y por delante también hay una rampa. No hay escalera.”

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ): “Si alguien fuera en silla de ruedas, ¿también puede acceder sin ningún problema?”

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “Perfectamente.”

Josi Insausti jaunak (H1): “El alquiler de la oficina de Goierri para impartir cursillos también lo paga el Ayuntamiento, ¿Por cuánto tiempo?. Además si hubiera algún problema, según dice el convenio, el Ayuntamiento ser encargaría de encontrar otro local. ¡Bienvenidos al Ayuntamiento, porque se concede todo lo que se pide!.

M^a Mar Celaya andreak (BILDU): “El Ayuntamiento paga el 50% del alquiler mientras el convenio esté vigente.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 4 (BILDU, PSE-EE/PSOE, ARALAR)
Aurkako botoak: 2 (EAJ, H1)
Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, hitzarmenak gehiengo absolutuarekin onartu dira eta Alkateari baimena eman zaio hitzarmen horiek sinatzeko.

6.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen atalean, Alkate jaunak ondorengo informazioa eman du:

URAREN TASAK

Gipuzkoako Ur Kontsorzioari, 2013ko azaroaren 4an ur taseei buruz hartutako erabakiaren berri eman ondoren, Gipuzkoako Irak adierazi du, beraiek proposatutako erabaki-proposamena, osotasunean onartu behar dela aplikatu ahal izateko, hau da:

Kontsumo-tarteak, etxebizitza bakoitzean erroldatutako pertsona kopuruaren menpekoak izango direla.

Pertsonarik erroldatuta ez dagoen etxebizitzaren kasuan, kontsumo guztiari aplikatuko zaion prezioa, goiko tartekoa izango da (330 litro, biztanle eta eguneko baino gehiago)

Horrela onartu ezean, lehengoa aplikatuko litzateke.

ERREKARTEKO ORDENAZIO BERRIA

Aitor Aldasoro jaunak (EAJ) galdetu du ea Errekarteko ordenazio berria lantzeko kontratatu den aholkulariaren kostua zenbatekoa den:

Alkteak erantzun du esanez, kostua 3.600 €koa (gehi BEZ), izango dela.

Eta tratatzeko besterik ezean, bilera bederatiak eta erdietan amaitu da eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.